



Euskarara ekarritako mundu zabaleko autoreen lanak euskal literaturaren parte dira

Xabier Olarra eta Lander Majuelo
Igela-ko editoreak

Hogeita hamabi urte beteko ditu aurten euskarara ekarritako literaturan erreferentia den Igela argitaletxeak. Xabier Olarra itzultzailea aritu da bertan, sortzetik, editore eta kudeatzaile lanetan. Joan den urteko abuztuan, pandemia betean, Lander Majuelori eman zion erreleboa. Erreleboa aitzakiatzat hartuta elkartu gara Iruñeko Takonera parkean, argitaletxearen eta Olarraren orain arteko ibilbideaz eta Majueloren aurrera begirako asmoez jarduteko.

 PERU IPARRAGIRRE

Etiket datorkizue literaturarekiko zaletasuna?

Xabier Olarra: Gure etxean liburu gutxi zegoen eskolako ez gain, baina gure aitona oso ipuinzailea zen eta buruz zekizkien Esoporen alegiak erreizitzen zizkigun, horrela ikasi genuen guk, sei-zortzi urte genituenean. Gero, adoleszentzian agertzen da beste hainbat mundu ezagutu eta beste hainbat historia jakiteko interesa. Denetarik irakurri nuen, ez bereziki adoleszenteentzako diren liburuak, horrelakoak ez nituen asko irakurri garai hartan. Gero, 16-18 urterekin, batzuentzat irakurtzea gauzarik inportanteena bilakatu da ia, beste batzuentzat futbola den bezala. Zerk egin ninduen euskal literaturaren zale? [Gabriel] Aresti eta [Jon] Mirande irakurtzeak. Eta beste munduko literaturaren zale unibertsitatean irakurri behar genuenak egin ninduen, baina baita gustuz hartu eta besterik gabe irakurritakoek ere.

Lander Majuelo: Gure etxean bai, ama maisua izanik eta aita irakaslea, etxean liburu pila egon dira beti. Uste dut imitazioz hasi nintzela, etxean beti norbait irakurtzen ari baitzen. Arrebak [Irati Majuelo literatur kritikari eta itzultzailea] eta biok gogoz irakurri dugu. Txikitik asko irakurtzearen oroitzapena daukat, ez dakit nolako ipuinak-eta izango ziren, eta baita komiki pila bat ere, eta helduek irakurtzen dituzten liburu katxarro horiek nolakoak diren susmatzerakoan, horiekin hasi nintzen, ulertu baino dezente lehenago. Gero, 14-15 urterekin, jakin-minak eta ulertzeko gogoak bultzatuta, liburu batean hartzen duzun erreferentzia batetik hurrengo liburura egiten duzu salto eta ez zara geratzen.

Mirande eta Aresti aipatu dituzu, Xabier. Miranderen inguruko tesia egitekotan egon zinen, ezta?

X.O.: Tesia egiteko asmotan nengoela Bordelera joan nintzen doktoretza ikas-tarora egitera. Bi poeta horien bideen nolabaiteko alderaketa egin nahi nuen. Baina han bidea erabat okertu zen. Okertu edo zuzendu, nork daki. Han hasi nintzen nobela beltz mordoa irakurtzen frantsesez eta ingelesez, eta espainolez ere. Halako batean pentsatu nuen horiek itzultzen hastea, eta han hasi nintzen. Lehenbiziko liburua, *Karteroak beti deitzen du bi aldiz* hantxe itzuli nuen, eta baita bigarrena ere, *1280 arima*. Elkarrekin argitaratu zituen, orduan oraindik Igela eta horrelako ezer ez nuen buruan. Han sortu zen nolabaiteko ideia.

Garai bertsean Miranderen poemen antologia editatu zenuen. Aldi berean hasi zinen itzultzen eta editatzen, beraz?

X.O.: Orduan ez neukan buruan edizioaren munduan enpresa gisa ezer egiteko

asmorik, gauzarik kafkiarrena iruditzen zitzaidan. Baina banekien Elkarri urtean liburu bat eramaten banion segur aski argitaratuko zutela, baina ez zitzaidan behar adina iruditzen. Iruditzen zitzaidan euskarazko ehunka nobela beltz behar zirela, garaiko nire ikasleek irakurgai izateko. Orduan, inuzente-inuzente, hortik abiatu ginen, jakin gabe zer zulo beltzean sar gintezkeen. Beltz, baina distira puntu batzuk ikusten ziren, oso urruti.

Euskarara ekarritako liburuak edukitzeko beharretik abiatzen da Igela, orduan?

X.O.: Premia ikaragarria zen. Ikasleei ematen genizkien *100 metro*, *Egune-ro hasten delako* eta beste bi edo hiru euskal nobela taxuzkoak, eta poemak irakurtzera behartzeko Arestiren poema bat edo beste igual... Behar zen eta ez zegoen. [Igela] sortzaileetako bi irakasleak ginen, eta premia horretatik

abiatu ginen. Hori abiapuntua zen, baina ez geneukan horrekin konformatzerik, ikuspegia pixka bat zabaldu behar da. Garai hartan itzulpengintzaren munduan zer zegoen ikusita premia askoz handiagoak baziren. Horregatik sortu ziren EIZIE [1988an] eta Literatura Unibertsala [1989an] ere. Guk ere bide horretatik jo genuen.

Aipatu izan duzu editore lana "tokatu" egin zitzaizula Igela sortzerakoan.

X.O.: Ni nintzen erabakia hartu eta bes-teei proposatu ziena, eta nik neukan, nolabait esateko, horren erantzukizuna, ahalik eta txukunen egin eta horretarako lankideak bilatzekoa, zeren bat irakaslea eta bestea Nafarroako Gobernuan itzultzailea izanik egin genezakeena oso mugatua zen, nahiz eta egun guztia horretan aritu. Hori da editore lana: itzultzaileak, zuzentzaileak eta laguntza eman dezaketenak bilatu eta egindakoa jendearengana iristeko moduak bilatu. Horrek buruhauste bat baino gehiago ematen ditu. Zeren liburu bat itzultzea eta argitaratzea kosta egiten da, baina gero saltzea beste gauza bat da. Eta hori ikasteko hogeita hamar urte behar izan ditugu.

Zerk ekarri du erreleboa ematearen erabakia?

X.O.: Hogeita hamaika urte itzultzaile edo langile edo horretan bakarrik ibili izan banintz aguantatuko nituen beste hamar ere, baina horrelako enpresa batek, nahiz eta txikia izan, lan asko eskatzen du estilo horretakoa: diru kon-tuez, gestioaz eta abar arduratzea, eta hogeita hamar urteren buruan kristoren zama bilakatzen da. Beste alde batetik, badagoelako jendea lan hori egin deza-keena eta igual guk gure orduko planteamenduekin ez bezala. Asma ditzakeena bide berriak edo bide berrietan hobeto moldatzen dena. Guk bizimodua kon-pondua geneukan eta horretara afizioz dedikatzen ginen, baina iruditzen zitzai-dan beste norbaitek beharbada alde-z aurreko esperientzia eta funts hori hor izanda sor zezakeela lanpostua. Gero ez dakigu, beste hogeita hamar urte irauten baldin badu ba bueno...

L. M.: Urte asko dira, e.

X.O.: [Barreak] Bai, XX. mendean urteak nola pasatzen ziren ikusita eta XXI.ean



nola pasatzen diren... ba auskako. Baina, bueno, hogeita hamar ez bada ere, hamabost badira... zerbait egingo da.

Nolatan iritsi da Lander Igelara, nola jazo da?

X.O.: Hori berak kontatu beharko dizu.

L.M.: Oso ongi ere ez dakit [Xabierrek barre egiten du]. Zeren, aurreko urtean Istanbulen hasi nuen. Urte erdiz egon nintzen han ikasten eta pandemiaren kontu honekin Berlinera itzuli nintzen. Hamar urte neramatzen Berlinen. Han egonda, eta etxeetan itxita geundela, arrebak abisatu zidan Igelan norbait bilatzen ari zirela. Imajinatu, ni ez naiz itzultzailea, ez dut sekula deus itzuli eta itzuli badut kaskarra izan da...

X.O.: Baina enpresari ona izateko aukera igual badaukazu [barrerak].

L.M.: Eta hori, gure familian ez da sekula enpresaririk egon. Inor ez, maisu familia da gehiago. Baina banuen ja buruan hona itzultzea, eta pentsatu nuen hobe nuela ahal banuen lan batekin itzultzea eta, gainera, asko interesatzen zitzaidan. Berezik eragin zidana izan zen etorri aurreko urtean [Bernardo] Atxagaren *Obabakoak* alemanera itzuli behar izan nuela, Bilbotik Stuttgartera joan zen antzezlan baterako. Gero, Berlinen Irati Elorrieta lagun-mina daukat eta berak bazuen eskuartearen liburu bat [*Neguko argiak*], eta hor egon ginen liburua lantzen kasik bi urtez; aurreko urtean Euskadi Saria irabazi zuen. Animatu egin nintzen. Pentsatu nuen: "Egongo dira zerrendak eta edukiko dute jendea, eta egingo dut pixka bat Euskal Herriko modura, ez Europakora". Ez nuen bidali ez curriculumik ez deus, eskutitza bidali nuen, esanez "ni hau naiz eta hau egin dut eta orain banator bueltan, eta nahi baduzue ni prest", eta ez dakit, ni sartu naiz. Ez dut jakin nahi nor ez den sartu.

Aldaketa handia egon da enpresaren funtzionamenduan?

L.M.: Bueno, nik aurrekoa ez dut ezagutzen, nola egiten zuten lan, baina bai nabari dudala, ez bakarrik Igelan, euskal kulturako beste txoko askotan ere eman dela salto hori, militantziaz... ez dakit nola deitu bigarren faseari.

X.O.: Profesionalizaziora.

L.M.: Bai. Baina aldi berean bada belaualdi bat nahiko prekarioki ibili dena lanean orain arte. Ni Berlinen zerbitzari izan naiz ikasle denbora osoan, etxeak margotu ditut-eta. Orduan, bizi espe-

rientzia hori oso ezberdina da. Gaur egun ja ezin dira gauzak lehen bezala egin zentzu askotan. Adibidez, eskatzen dizkizutelako fakturak toki guztietan, edo ez delako lehen bezain erritmo lasaiko merkatua, sareetan egon behar zara, hilabete baten buruan liburu bat ja ez da berria.... Zentzu horretan ez dugu aurreko belaunaldiak baino lan gehiago eginen, eta esfortzua ere ez da berdina izango, baina behar da gaur egungo egoerara egokitzea Igelaren ondarea, ez bakarrik salbatzeko dagoen bezala, baizik eta fruituak ematen jarrai dezan. Ni neu ere ikasten ari naiz, astero Xabierri "turra" ematen eta Fernando Reyren laguntzarekin, eta jende askorekin hitz egiten ari naiz. Funtsean hori da: ezagutu behar duzu irakurlea, liburu-dendakoa, inprentakoa -oso inportante-, banatzailea... Eta akatsak egiteko beldurrik gabe aritu, zeren konturatu naiz ez dela prozesu ideala, eta liburu perfektua ateratzea nahiko zaila dela. Oraingoz kolpe handirik ez dugu hartu, baina bueno, sei hilabete daramatzagu. Etorriko dira liburu oso kaskarrak eta baita liburu onak ere.

“ ”

Jendeak gehiago irakurtzea nahi baduzuk eskaini behar duzu zerbait hobea

Lander Majuelo

Zenbateraino aldatu da panorama azken hogeita hamar urteotan?

X.O.: Euskal literaturazaleak 80. urtean argitaratzen ziren obra guztien ia erabateko kontrola eduki zezakeen. 90eko hamarkadan oraindik ere bai, eta 2000. urtera arte iraun zuen horrek, esango nuke. Geroztik ja gauzak asko aldatu dira. Zer ateratzen den ere ez dago jakiterik ia.

L.M.: Iruditzen zait kristoren potentziala daukatela bai autoreek, bai liburuen inguruan mugitzen den sektoreko jende askok, eta ez zaiola beldurrik izan behar gauza zailak egiteari. Begira zeinen iraultzailea izan zen duela kasik hogeita hamairu urte itzulpenari hainbeste garrantzi ematea. Igelaren kata-

logoan sekulako kalitatea dago, eta uste dut hortik jarraitu behar duela kontuak, gaur egun saltzen zailak diruditen titulu batzuk euskal irakurleak eskertuko dituela. Horregatik, horretan jarraituko dugu, bereziki autore bakoitzaren lan bat baino gehiago ateratzen eta saiaturaz liburuak euskarara ekartzean ez besterik gabe, gauza hil baten moduan, klasiko bat balitz bezala, baizik eta gaurko irakurleengan eragina izango duen obra bat ekartzen. Igual orain ari gara itzulpenaren garrantziaz konturatzeko, eta berandu da, baina beti gaude garaiz. Orain arte irakurle gisa asko gozatu da itzulpenaz, eta igual ez zaio hainbeste garrantzi eman hezkuntzan eta euskarak behar duen bidean. Espero dut gehiago sartuko dela hezkuntzan eta euskal literaturaren barnean ere zentralitate handiagoa emango zaiola, zeren itzultzaileen maila sekulakoa da, eta ekartzen diren liburuen maila ere bai, nik uste.

Esker txarreko lana da euskarara ekarritako literatura argitaratzea? Ematen zaio merezi duen garrantzia?

X.O.: Hori betiko gerra da, eta gerra horretan badaramatzagu hogeita hamar urte. Gure aldetik apustua garbia izan zen hasieratik, eta tarteka muturreko batzuk hartu ditugu. Ez litzateke berdina izango Igelak testuliburuen lerro bat balu, handik ateratakoa gero literaturako ez dakit zer apustutan gastatzeko. Baina ez da horrela eta askoz zuhurrago ibili behar da obrak aukeratzean. Hezkuntzan, hein batean behintzat, garbi daukagu lortu dugula gure liburuak sartzea, bai Sail Beltzekoak eta baita Agatha Christierenak ere, esate baterako, franko irakurriak izan direla adolozenteen artean. Hortik sortzen baldin bazaie aurrera segitzeko grina, badaude dasta ditzaketan altxor batzuk. Hori da apustua. Beharbada beste hogeita hamar urte beharko dira, ez dakit.

L.M.: Esker txarrekoa, igual, instituzioen aldetik. Ez zaiolako itzulpenari behar duen zentralitatea eman. Baina liburuen sektorean ibiltzen den jendeak badauka irakurlea kritikatzeko joera, sei hilabete hauetan ikusi dudana nagatik behintzat: ez dela nahikoa saltzen, ez dela nahikoa irakurtzen, eta abar. Okerra iruditzen zait hori. Zeren, alde batetik, jendeak irakurtzen du nahi duena eta nahi duen moduan, eta hori toki guztietan gertatzen da eta ez da

aldatuko. Bestetik, jendeak gehiago irakurtzea nahi baduzu zuk eskaini behar duzu zerbait hobea. Euskal Herrian, hain justu, bada publiko bat nahiko militanteki erosten dituen euskarazko liburuak, euskal idazleenak behintzat, igual itzulpenak gutxiago, baina ez dut uste arazoa jendea denik. Gehiago da kulturalki zer posizio ematen zaion itzulpengintzari, eta horren arduradun direnek zelako bultzada ematen dioten. Ez klasikoan balda bat sortzeko, baizik eta euskarak behar dituen eta euskal kulturak lor ditzakeen gaitasunak osatzeko. Mundu zabaleko autoreen lanak gurera ekartzea ez da gauza estankoa, baizik eta euskal literaturaren parte zehatza; izugarri hazten du euskara, euskara batuak egin zuen bezala, azken finean gauza osatuagoak sortzeko bidea da.

Orduan, esker txarrekoa publikoaren aldetik ez dut uste, gehiago administrazioaren partetik, eta hori dirulaguntzak daudela eta dirulaguntza horiek gabe ezingo genukeela aurrera egin. Ez da diru kontua, baizik eta itzulpengintzaz dagoen ideia. Bestela, azoketan, jendeak, eta bereziki jende heldu askok, barre egiten du Agatha Christie euskaraz dagoela ikusita, gauza zentzugabea balitz bezala. Hori ez da irakurtzen duenaren kulpaa, baizik eta medioek, instituzioek eta abarrek non kokatzen duten itzulpengintza.

X.O.: Bai, hori egia da. Baina bueno, gerra horretan daramatzagu hogeita hamar urte hauek, eta egoerak hobera egin duela uste dut. Ez dago konparatzerik hasieran argitaratzen genituen liburu horiek zuten oihartzuna eta gero izan dutena.

L.M.: Azkenean, literaturaren edo liburuaren sektorea gizartearekin batera doa. Euskal Herrian ibili gara gure gerretan sartuta eta hor gehiago nabarmendu da euskal idazlea. Orain, onerako edo txarrerako, ezberdina da; aldatzen ari da kontua. Herri normalagoa izateak, horri karga positiboa edo negatiboa jarri gabe, ekartzen du beste tokietan ja bazegoen merkatu mota, publiko mota, irakurle mota, eta abar. Alde daukaguna da hor ibili direnak eta orain dabilizanak oso onak direla, sektorea ez dagoela muntatu gabe. Itzultzaile asko eta onak daude, eta gainera hizkuntzetan gero eta espezializatuagoak datoz. Alde horretatik beldur gutxi.

X.O.: Garai hartan, hasieran, liburuak itzultzeko jende bila aritzen ginen eta

zeuden fidagarrienak oso okupatuak egoten ziren. Orain genuenaren moduko planteamendu bat egiten duzunean badakizu ahalegin handirik gabe aurkituko dituzula testu horiek taxuz ekarriko dituztenak. Hori aldatu da, bai.

Igelaren hasierako plana hamar urtean ehun liburu argitaratzea zen.

X.O.: Baina doblea kosta zitzaigun! Burretzen zitzaidana zen autore bakoi-tzaren liburu bat atera beharrean hiru atera behar zirela. Orduan, 33 autorerekin, 99 liburu ateratzen ziren, ehun-garrenekin ez dakit zer egingo genuen.

“ ”

Hogeita hamar urtean ibili gara gure ideiarekin lanean eta orain igual beste zerbait egin behar da

Xabier Olarra

Zer geratzen da plan horretatik gaur egun, eta zein da etorkizunerako plana?

X.O.: Sail Beltzean 100etik 25 liburutan gelditu ginen, baina autore batzuk badaude errepikatuta. Orduan, bide hori jarraitu nahi izanez gero 33 arte beste sei edo zazpi autore bilatu beharko lirateke eta haietatik segi betetzen, hori posible litzateke. Literatura Sailean, berriz, hor ez geneukan inolako planik. Bagenekien gutxi gorabehera zer liburu mota ekarri nahi genituen, Truman Capote, [Louis-Ferdinand] Célineren *Gauaren muturrerainoko bidaia*, eta beste hainbat. Pixkana osatu eta berriro dugu, klasiko modernoak eta besterik gabe liburu berriak ekarri: Annie Ernaux, Amélie Nothomb, [Alessandro] Baricco, [Natalia] Ginzburg... Bide luzexuegoa egin dugu hor, 61-62 titulu badira; hortik 100era ailegatzeko errazagoa da bidea. Badago lerro moduko bat, eta orain garaiak hainbeste aldatu direnez gero, ibilbide hori osatu eta igual beste bide batzuetatik jotzea ere oso zilegi litzateke. Gu gure mentalitatearekin eta gure ideiarekin ibili ginen hogeita hamar urtean zerbait egin nahian eta orain igual beste zerbait egin behar da. Hori editore berriari dagokio.

L.M.: Ni ez naiz ausartzen ehun tituluko plana egiten, inolaz ere, baina bai ikusten dudala Igelaren altxor nagusia bere katalogoa dela. Oso argialetxe txikia da baina duina, oso zehatza, eta uste dut hori ez litzatekeela sekula aldatu behar. Sailak nahiko ongi antolatuta ditu eta Sail Beltza bada pixka bat Igelaren bandera-ontzia. Hor dauden tituluak hartzen badituzu nobela beltzaren historiako titulu hoberenen zerrenda egin dezakezu ia. Hori oso zaila da normalduak dauden beste hizkuntza batzuetan egitea. Hau da, ez badu inork egiten erabateko askatasuna daukazu, eta konpetentziarik ez, eta hori gauza miragarria da. Aurrera begira, uste dut oso interesgarria dela autore bat ekarri eta bere liburu bat baino gehiago ateratzen jarraitzea. Bina autoreetan eta gaitan bide berriak jorratzea da asmoa; Sail Beltza bera, adibidez, 25 liburuk osatzen dute eta idazle guztiak gizonak dira. Azken urteetan asko aldatu da hori ere, eskandinaviarrak daude, esaterako...

X.O.: [Patricia] Highsmith ere ekarri genuen.

L.M.: Baina Highsmith hain da ona Literatura Sailean dagoela.

X.O.: Berak ez zuelako nahi nobela beltzen idazletzat hartzea, baizik eta idazle *mainstream* gisa, horregatik atera genuen Literatura Sailean.

L.M.: Niretzat garrantzitsua zen orain arte gauzak nola egin diren ikustea. Azken hilabeteetan atera ditugunak erdi-lotuta zeuden lehendik, prozesuan zeuden itzulpenak zirelako. Hemendik aurrera aterako ditugun artean, adibidez, Ursula K. Le Guinen zientzia-fikzio liburu bat dago, eta baita [W.G.] Sebalden bat ere. Bestetik, ziurrenik sail berri bat sortuko dugu, literaturarekin zerikusia daukaten testuak eta kazetaritza, historia, filosofia edo beste esparru batzuetatik sortu ziren baina bizitza literarioa eduki duten testu laburren, eta hor, adibidez, [Karl] Marxen *Louis Bonaparteren Brumarioaren hemezortzia* argitaratuko dugu. Baina bilduma horretan egon daiteke Virginia Woolfen saiakera bat, edo Walter Benjaminen zerbait. Autore pila daude ekartzeke. Baina presarik ez, zeren ikusten dut errazena eta politena dela beti liburu-zerrendak egitea [Xabierrek barre egiten du], zer ekarri, nork ekarriko duen, eta abar, eta zailena gero da liburuaren eskubideak lortzea, itzultzea, dena muntatzea eta, gero, saltzea. ●